

ESKABIDEAREN DATUAK

Entitate eskatzailea: AITU Euskararen Sustapenaren aldeko elkarte

IFK zk.: G-95813598

Eskabidearen data: 2018/06/19

ARAUDI OROKORRA

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) eta 28. artikulua eta Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 EDko 65. artikulua.

ARAUDIA

Ordenantza Orokorra: Udalbatzak Diru-laguntzen Emakida Arautzen duen Ordenantza Orokorra 2005eko ekainaren 24an onetsi zuen eta 2007ko azaroaren 28an aldatu.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa: Udalak 2016-2019 epealdirako onetsi zuen1.

Transferentzia Arrunten Eranskina: 2018ko ekitaldirako Aurrekontuko Transferentzia Arrunten eranskinean, 07.3351.481.06 aurrekontu-partidan, AITU Euskararen Sustapenaren aldeko elkarteari 15.000,00 euroko diru-laguntza izenduna ematea aurreikusita dago.

Diru-laguntzak emateko eskumena: Urtarrilaren 17ko 43/17 Dekretuak, dagokion eremuan diru-laguntzak emateko eskumena Euskara eta Hezkuntza Batzordeko presidenteari eskuordetzen dio.

AURRETIAZKO TXOSTENAK

1.- Hezkuntza eta Euskara teknikariaren txostena (2018/07/16).

2.- Kontu-hartzaile Orokorraren aurretiazko fiskalizazio txostena (2018/07/24).


EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ondoren aipatzen den entitateari / elkarteari diru-laguntza ematea, hain zuzen ere, adierazten zenbatekoa, eta zehazten den programarako

ENTITATEA / ELKARTEA	IFK	PROGRAMA	ZENBATEKOA
AITU Euskararen Sustapenaren aldeko elkar	G-95813598	Binke! Hilabetekaria egitea	15.000,00€

Bigarrena.- Aipatutako entitateari / elkarteari onetsitako kopurua ordaintzea, aldez aurretik diru-laguntzaren baldintzak arautzeko hitzarmen bat sinatuta.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesadunei jakinarazi eta udaleko zerbitzu ekonomikoei helaraziko zaie.


Errupin Jauregi Barrenetxea.
Hezkuntza eta Euskara Arloko zinegotzi delegatua

